

LEHEN ATALA

KARANBOLA MAGIKOA

UPN sortzean planteatu genituen helburu guztiak lortu ditugu: batetik, Nafarroaren nortasunari eustea; eta, bestetik, zentro-eskuinaren eremua bateratzea.

Javier Gomara

UPNren sortzailea eta diputazioko presidente ohia

Hizki handiz *Zisne Beltza* deritzogun gertakari motak hiru ezaugarri ditu. Lehenik, aparteko kasu bat da, iragarpen orotatik kanpo dagoena; izan ere, iraganaldian ez dago ezer hura gertatuko dela modu sinesgarrian adierazten digunik. Bigarrenik, muturreko eragina dauka. Hirugarrenik, apartekoa izanagatik, giza izaerak azalpenak bilatzera garamatza gertaera bera jazo ostean, eta, horregatik, azaltzeko eta iragartzeko modukoa da.

Nassim Nicholas Taleb
Idazlea

Beti egokitu zaigu galtzaileen bandoan egotea”. Ahots hari nekatuaz mintzo bada ere, Concha Dieguez ez da ahanzten. Berriozarko bere etxeko egongelan eserita, garai bateko argazkiei, gutunei eta koaderno zaharrei so dago 86 urteko emakumea. Dena gordezten du. Dena apuntatzen. Badaezpada ere. “Garunean tumore onbera detektatu zidatenetik, datu batzuek dantza egiten didate buruan”, dio barkamena eskatuz bezala. Baina akordatzen da. Xehetasun guztiekin konta dezake, adibidez, militar kolpistek aita bahitu eta fusilatu zioten egunean gertatu zen guztia, baita ondorengo urteetan pairatu behar izan zituen umiliazioak ere, emakumea, langilea eta komunista izateagatik. “Hilik bizitzera kondenatu ninduten”.

Beti galtzaileen bandoan. Frankismoa bukatu zenean ere, aldaketa handirik ez zuen nabaritu. “Nik aurpegi berberak ikusten nituen beti boterean, kolore bereko jaka eta gorbatekin”. Lantokian zein herrian, irabazleen kastak ez zion barkatu komunista eta fusilatutako errepublikano baten alaba izatea. “Denetarik sufritu dugu. Etxea erre ziguten behin, eta bestelako eraso asko ere jasan ditugu. Marka hori ez zaigu kendu. Etengabe gogorarazten ziguten gertatu zena. Handik urte askotara ere, *kontuz horrekin, komunista baita!* esaten zuten niri buruz lanean”. Sumindu egiten da gobernuaz hitz egitean: “Urteetan, ez dute hatz bakar bat ere mugitu”. Yolanda Barcinaren gobernuaz ari da. Agintaldi hartan, ez zuen diru laguntzarik onartu fusilatuen gorpuzkiak berreskuratzeko edo identifikatzeko. “Zertarako?, haiek irabazi zuten gerra”.

2015eko maiatzaren 24an, ordea, esperantza errainua ikusi zuen Conchak, betiko erregimena eraitsi zenean, zauri amaigabea zirudiena behingoz ixteko moduan zitekeelako. Irribarre meharra marraztu zaio ezpainetako zimurren artean. “Poztu nintzen, bai. Ez nigatik; 86 urte

ditut, eta beranduegi da niretzat. Baina poztu nintzen zuengatik, gazteengatik. Eta gauzak aldatzen has daitezkeelako, azkenik”.

Azkenik. Concha Dieguezzen modura, hauteskunde gau hartan nafar askok ahoskatu zuten hitz hori. Ilusioaren eztanda hark bere kontrastea du Nafarroako Jauregi barruko Presidenteen aretoan. Oso ezaguna ez bada ere, horko hormetan, eskegita daude 1940tik Nafarroa gobernatu duten agintarien margoak. Denboran izoztuta baleude bezala, banan-banan, zorrotz begiratzen diote ikusleari, bazter batean erdi-ilunpean dagoen Tomas Dominguez Arevalo Rodeznoko kondetik hasi, eta gainerakoekin alderatuta kolore argiekin margotua dagoen Yolanda Barcinarenera heltzeraino. Ia gehienak jauntxo heldu eta kontserbadoreak dira. Hamabi koadroko sekuentzia azkar horrek diktaduraren hasieratik gaurdaino gobernatu dutenen erretratu bakarra osatzen du, eta tonu ilunak garai luze horretan bestelako Nafarroa batekin amets egin duten belaunaldiek pilatu duten etsipena laburbiltzen du.

Atzerantz begiratuta, aldaketa zein zaila izan den ikusten da. Ez dago oso urrutira jo beharrik. Edozein nafarri 2011n PSNrik gabeko gehiengo baten aukeraz galdetu izan balitzaio, baikorrenak ere ezinezkotzat joko zukeen. Urte hartako foru hauteskundeetan, UPN eta PSN lehen bi indarrak izan ziren, eta bien artean soilik 50 parlamentarietatik 28 lortu zituzten. 2014an bertan, oso nafar gutxik esperoko zuten urtebeteren bueltan gertatu zena. Nahiz eta ordurako UPNren eta PSNren koalizioa gobernu hauzia izan eta Yolanda Barcinak higadura handia jasan, ezinezkoa zirudien sozialistarik gabeko 26 eserlekuko aritmetika hura.

MARTXOAREN IDUSAK, TRAZIO HAIZE

Orduan gertatu zen azken aukera. 2014ko otsailaren 11n, 18:00ak aldeira, Idoia Nieves Ogasuneko gerente ohiak Parlamentuan, denen harri-durarako, bonba mediatiko bat jaurti zuen: Lourdes Goikoetxea presidenteordeari bulegoa bere bezeroen mesedetan erabiltzen ahalegintzea egotzi zion. Salaketa hark hauteskunde aurrerapenaren atzerako kontaketa botoia sakatu zuen. Parlamentariak elkarri begiratu zioten, en-

tzuten zutena ezin sinetsirik. Arratsalde hartan, politikoki irauteko eta Barcinarekin zituen zorrak kitatzeko itxaropen izepia ireki zion Nievesek PSNko Roberto Jimenezi. Biharamunean bota zituen, PSOEek ikerketa batzordeari oniritzia eman ziola ikusita, bere karrera politikoko esaldirik ezagunenak: “Edo badoa, edo botako dugu” (Barcinari buruz). Ferrazek beti azken hitza izaten zuenez, zalantzei are irmoago erantzun zien: “Nafarroan PSOE neu naiz”.

Aldaketaren protagonista nagusiak une hartan Parlamentutik oso urrun zeuden. Uxue Barkosek Iruñeko Udalaren eta Kongresuaren artean antolatzen zuen jardun politikoa, eta, bere baitan Geroa Bairen hautagaia izango zela jakitun, makineria berotzen hasi zen. Koalizioa sorturik hiru urte pasa baino ez zituen eta, Uxue Barkosen arabera, legealdi hura “barne egitura sendotzeko baliatu zuen”. Baina barnean baziren zalantza batzuk. Nafarroa Bai 2011 hautsi zenean, talderik gabe gelditu ziren Manu Aierdi eta Patxi Leuza: “Atxiki gabeko parlamentariak ziren, eta horrek haien lana oso modu nabarian txikiagotzen zuen. Gizarteak hori ikusten ez ote zuen beldurra zegoen”, esan du Barkosek.

Adolfo Araiz, berriz, *herriko tabernen* auzian zegoen akusatuen artean, eta, perspektiba onak izan arren, buru-belarri zegoen epaiketara begira. “Gori-gori zegoen auzia”. Hala ere, hauteskundeetara berehalakoan deitu zezaketelakoan, Floren Aoiz eta EH Bilduko pisuzko pertsona batzuek hautagai izateko galdetu zioten. Soslai teknikoa zuen norbait behar zuten. “Oraindik zigortu gabe nengoen, baina ez zuen zentzurik epaikatetik libre atera baino lehen inolako hauteskunde prozesutan sartzea. Oso diana erraza jartzen zitzaien besteei”.

Ahal Duguko Laura Perezen burutik ez zen ezta pasatu ere egiten alderdi sortu berri bateko hautagai izatea. Hilabete lehenago, urtarrilean, Madrilgo Lavapies auzoko Teatro del Barrion, Podemos izeneko alderdi bat aurkeztu zen, eta Perezek zuzenean Internetetik jarraitu zuen fenomeno berri hura. “Urruntasunetik begiratzen nuen. Teresa Rodriguez, Pablo Iglesias, Iñigo Errejon, Juan Carlos Monedero... Gogoko nituen denak, baina zer egingo ote zuten zain nengoen”.

UPNren baitan, berriz, urak oso nahasi zeuden. Bezperan, ziur agertu zuen Barcinak bere burua hautagai izatekotan urratsa “unerik egokienean” egingo zuela. Nievesen salaketak, ordea, danbatekoa eragin zuen gobernu barruan eta alderdian. UPN berriro gelditu zen Barcina presidentea kosta ahala kosta defenditzeko atakan. Edonola ere, ordurako hasi zen zurrumurru giroa, eta, hautagai izateko aukera urrun egonagatik, Jose Javier Esparzaren izena Barcinaren balizko ondorengoan zerrendan agertu zen.

Erromatarren egutegian, martxoaren hamabosgarren eguna *augurio* onen igorle izan ohi zen, eta, gure egunetara ekarrita, espero zen hilabete horretako idusak Yolanda Barcina agintetik kenduko zuen zentsura mozioa ekarriko zuela. Hauteskondeak aurreratuko zirelako kezka, alderdi guztiak urduritu ziren, baina, azkenik, norabidea aldatu, eta betiko traizio haizea etorri zen. 2007an bezala, Ferrazek ekimen hura ez babesteko agindua eman zuen, eta, beste behin, PSNren Lurralde Batzordeak men egin zuen. PSOEek arnasbidea eman zion Barcinari, eta bere frankiziaren joko eremua murriztu zuen. Erabaki hark Roberto Jimenez politikoki kondenatu zuen, eta, handik aste batzuetara, dimisioa eman zuen. Moziorik gabe argitu zen joko taula. Alderdi guztiek urtebete izan zuten bozak behar bezala prestatzeko.

XAKE-MATE ERREGINARI

Ekainean, Araizek oso berri ona jaso zuen. Auzitegi Nazionalak absoluzioa ebatzi zuen, eta sei urteko espetxe zigorraren mehatxua betiko alden du zen. Haatik, Nafarroako ezker abertzaleko buruzagi historikoak ondo gogoan zuen otsailean beregana jo zutela eta “etxea ezagututa” susmoa hartu zion laster erantzukizun berriak hartu beharko zituela. Uda hartan berretsi zituen susmo haiek berriro beregana jo zutenean. “Hitz eginda zuten EArekin eta Aralarrekin, eta baiezkoa eman zitzaion nire hautagaitzari”. Irailaren 1erako eszedentzia eskatu zuen lanean.

Edonola ere, fitxa mugitzen lehena Yolanda Barcina izan zen. Abuztuaren 29an, Cadreitan, UPNko zerrendaburu izango zela iragarritz ekin zion urte politiko berriari. Pozarren, aurreko hiru urteak bere bizitza

politikoko zailenak izan zirela aitortu arren, aurrera jarraitzeko irmotasuna erakutsi zuen. Arerioak alboan txaloka zituen. Alberto Catalanek zin egina zion aurkezten bazen leialtasuna erakutsiko ziola, eta hitza bete zuen; Iñigo Allik ukatu egin zuen gobernuko kontseilaritzatik harago jotzeko anbizioa zuela; eta Jose Javier Esparzak “Barcina hautagairik onena” zela aipatu zuen. Hartara, alderdi barruko aurkariak eskutik janda zituela, eta beste alderdiek lehen mugimendua egin aurretik, posizio ezin hobean ekin zion lasterketa politikoari.

Urriaren 3an, Geroa Baik mundu ororentzat tramite jakina zena bete zuen, eta militanteek Uxue Barkos aukeratu zuten primarioetan. Astebete geroago, Adolfo Araizen txanda heldu zen. Dena den, koalizioaren barnean zein inguruetan, zalantza batzuk zeuden hautagairik egokiena ote zen proiektua gidatzeko. Bakartxo Ruizen aldean, HBko buruzagi izana zenez, arerioei eraso egiteko aukera errazten zitzaion kanpainara begira. Hala ere, hobetsi zen legez kanporatzeen ondorioz politikaren lehen lerroa utzi behar izan duten pertsonen balioa azpimarratu behar zela eta batez ere parlamentuan zein gobernuan egin zezakeen lana garrantzitsuagoa zela desabantaila baino.

PSNk lehengo lepotik jarraitu nahi zuen Nafarroaren geroa baldintzatzen, eta, Roberto Jimenezek porrota aitortu eta berehala, alderdiak aurpegiak aldatu zituen udazken hartan. Sinesgarritasun krisi agerikoan murgilduta, Maria Txibite, ildo ofizialaren ordezkaria, Amanda Acedori gailendu zitzaion. Azken hogeituroteetako gainbehera geratu eta boto-emaielen konfiantza berreskuratzea zuen xede. Erronka handia hain denbora gutxirako, are handiagoa keinu politiko hutsak eginda.

Aldapan gora indarrak ahitzen zaizkion txirrindulariaren tankeran, Barcinak berehala galdu zuen hasierako abantaila. Estatuak 1.513 milioi erreklamatu zizkion Nafarroari Volkswagenen BEZA zela medio, eta krisia kontraerasorako baliatu zuen Miguel Sanzek; estatuak zer egiten duen ikusita epelkeriaz jokatzeko eta alderdiaren eskuak lotzea leporatu zion: “Itunak egiteko UPNk anbizio handiko hautagai bat izatea nahi nuke”. Botereari eusteko, PSN behar zuen beste behin, eta Barcinarekin jai zuen UPNk. Pultsu hari ezin izan zion eutsi Barcinak, eta azaroaren 11n, amore eman zuen. Ziurrenik, UCDDko Pio Cabanillasen aspaldiko

aipu hura etorriko zitzaion gogora. “Kontuz, denok lurrera, gureak datoz eta!”

Hala ere, Barcinak jarraitzen zuen alderdi barruko organoak kontrolatzen, eta parlamentuko zein udal nagusietako zerrendak osatzeko ahalmena zuen. Testuinguru hartan, Esparzaren anbiguotasun kalkulatu erabakigarria izan zen. “Jende askok animatu ninduen pausoa ematera. Onerako eta txarrerako egon behar duzu, eta oso momentu konplexuan eman nuen aurrerako pausoa”. Abilezia erakutsi zuen. Hautagai izango ote zen galdetuta ihes egiten zuen egunero. Ironikoki, Eslaban araztegi batera egindako bisita ofizial bat aukeratu zuen hautagaitza iragartzeko, baina egun hartan ez zen inor bertaratu. “Ez zen kazetaririk etorri, eta Eslabatik deialdi azkar bat bidali genuen”. Eguerdia zen, eta ez gobernuko prentsa kabineteak ez UPNkoak ez zuten Esparzaren iragarpenaren berririk. 13:00etan, departamentuaren kanpoaldean jakinarazi zuen berria, eta, urrats harekin, bidea itxi zion Barcinaren ingurunekeo beste edonori. Sektore hark Enrique Maia nahiago zuen, baina Iruñeko orduko alkateak uko egin zion, eta Esparzak jaso zuen Barcinaren be-deinkapena. Haatik, argi utzi nahi izan zuen bera ez zela ez Barcinaren ez Sanzen sokakoa. Hurrengo egunetan, beste hiru hautagai aurkeztu ziren –Alberto Catalan bat–, baina, azaroaren 29ko kontseilu politikoan, Esparzak irabazi zuen lehia. Burumakur, inori ezer esateko gogorik gabe, Catalanek porrota irentsi, eta ziztuan alde egin zuen. Alderantziz, Barcinak gogotik ospatu zuen garaipen hura.

Irribarrea martxoan izoztu zitzaion, Esparzak kartak mahai gainean jarri zizkionean. Parlamenturako zerrendak osatzeko unea iritsi zenean, aktibatu zen Troiako zaldia, eta muturreko galanta hartu zuen Barcinak. Haren harridurarako, *bere* hautagaiak hordagoa bota zion, eta zerrendatik atera ezean dimisioa aurkeztuko zuela mehatxatu zuen. Ipurdiko ederra hartu zuen, eta, hauteskundeak ate joka izanik, galbidea ekarriko zuen erronka jotzen bazuen; ziurrenik, orduantxe jabetu zen hanka sartu zuela. Xake-mate erreginari. Hilabete gutxiren buruan, zerrendaburua zena zerrendatik kanpo geratu zen.

“Ni Agoizko alkate izana naiz, eta, testuinguru diferentea izanik ere, alkate edo presidente ohi bat zerrendako bigarren izatea deigarria bada”,

justifikatu zuen Esparzak. “Bere posizioa berriz kontuan hartzeko eskatu nion [Barcinari]. Uste dut onena egin zuela eta eskuzabal jokatu zuela”. Barcinak Iñigo Alli zerrendatik ateratzea exijitu zuen, eta Luis Zarraluki eta Juan Luis Sanchez Muniain sartu zituen, baina Esparzak irabazia zuen lehia politikoa. Bidea libre zuen maiatzaren 24ko bataila handia irabazi eta PSNrekin aliantza berreskuratzeko.

ZISNE BELTZA, INORK ESPERO EZ DUEN FAKTOREA

UPNkoek arerio berria zuten ordurako taula gainean, eta haren mehatxua, bene-benetakoa. “Ekonomista batzuek aipatu ohi duten zisne beltza da Ahal Dugu, inork espero ez duen eta bat-batean agertzen den faktorea”. Santiago Cervera PPko buruzagi ohiak halaxe deskribatzen du Nafarroako politika hankaz gora utzi eta UPNren nagusitasuna kolokan jartzeko erabakigarria izan den alderdiaren agerpena. Inork ez zuen iragarri haren sarrera agertokira, ez baitzegoen historia garaikideko liburuetan ez analistarik zorrotzenen kalkuluetan. Eta, bat-batean, mugiezina zirudien jokaleku politikoa, inork espero ez zuen zisne beltza agertu zen.

Azaroan erakutsi zuen zertaraino gauza zen. Navarrometro inkestak hemezortzi eserleku eman zizkion, eta UPNren beraren aurretik jarri zuen. Inkestaren lanketa teknikoari zorrotzasun falta egotzi zioten soziologoek, baina atzean nabari zen gizartearen marmarra. Jendea haserre zegoen UPNrekin, eta Ahal Duguk sumin hura bideratzeko ahalmena zuen. Paradoxa da, ez baitzuen aurpegi ezagunik, eta, herritar gehienentzat, Pablo Iglesiasen distira mediatikoaren itzal anonimoak baino ez ziren. Baina nor ziren eta nondik zetozen?

Nafarroako Ahal Duguren iturburua txikia zen. Juan Carlos Monederok eta beste 25 lagunek *Fitxa mugitu* agiri politikoa bultzatu zuten Espainian; agiri hartan, herritarren sumina aldaketa politiko bihurtzea aldarrikatzen zuten, eta Podemosen sorrerako oinarrizko ideia hari segida, Nafarroan, Oscar Fresanek eta Antikapitalistak taldeko kide batzuek eman zioten. Hala, behintzat, sugar hark kohesioa eman zion indar sozialari, eta, 2014ko Europako Parlamentuko emaitza onek erakarrita,

jatorri askotako adar berriak batu ziren. Adibidez, IUren ingurunetik zetorren Laura Perez, eta PSN haserre utzita etorri Ainhoa Aznarez. Gillen Carrozak, berriz, udako egun batez, kasualitatez, Fresanekin topo egin zuen. “Nahi zuenerako laguntzeko prest nintzela esan nion”. Antzera gertatu zitzaion Eduardo Santosi. Haren abokatu bulegoan profesionalki oso ondo zihoakion, baina, hain zuzen horrexegatik, nekaztuta zegoen. Harentzat, abokatutza betidanik izan da militantzia sozial eta politikoaren parte, eta, kontzepzio hartatik aldatzen ari zela nabari zuen: “Haustura bat gertatu zen neure baitan. *No man’s land*, inoren eremuan aurkitzen nintzen”. Bitartekaritza judiziala landua zuen, eta Oscar Fresani esan zion landuko zuela erakunde politiko baten barne gatazkak konpontzeko prozedurei buruz proposamena. Halaxe sartu zen pixkana alderdian. “Niretzat, oso dibertigarria izan zen hasierako prozesu hura, gustatzen baitzait proiektuak eraikitzea, osatzea”.

Navarrometrok sorpresa eman zien Ahal Duguko partaideei, baina ez ziren askotxo fio emaitza bikain haiekin: “Ez genituen sinetsi. Ezagutzen dugu Nafarroa, eta ezinezkoa zen. Maniobra bat izan zen erregimenaren indarrak mobilizatzeko eta esateko *kontuz, gorriak datoz!*”, arrazoitu du Santosek. Edonola ere, Gillen Carrozaren ustez, ondorio politiko batzuk utzi zizkien. “Jendeak gauzak aldatu nahi zituen, eta berdin zitzaion nork ordezkatuko zituen. Bagenekien irrealia zela baina EH Bildurekin erlazio hipotetiko bat justifikatzeko kontraera landu behar zela erakutsi zuen. Pentsatzen zen zaila zela estatuan ulergarria izateko moduko didaktika ariketa bat egitea, eta horrek ondorioak zekartzan estatu mailan eta alderdi barruan”. Horregatik, funtsezkoa izan zen 2015eko maiatzerako agertoki politiko hura prestatzea.

Berehala heldu behar izan zioten auzi horri. Komunikabideen arreta piztu zuen itxaropen handi horrek, eta erabakigunearen ezbaia-ri heldu zioten zuzenean. Bitarte hartan, ordezkarik finkorik eta egitura organikorik ez zuten, gaizki-ulertuak izan ziren. Podemosek Vista Alegren lehen batzar hura egin zuen, eta, gero, Ione Belarra izendatu zuten Estatuko Herritarren Kontseiluko kide; horregatik, prentsak maiz jo zuen harengana. Abenduan, Nafarroako erabakiak estatuko kontseiluak hartuko zituela adierazi zuen, eta hura azalera eraman zuen *Noticias* tal-

deak. Laura Perezen arabera, testuingurutik kanpo ateratako esan haiek min egin zieten, eta alderdi berriak besteengan eragindako bertigoaren adierazletzat jo zuen. Buru gainean zuten *PSNren sindromearen* mamua. “Aldaketa zapuztu genezakeela leporatzen zitzaigun. Zenbat eta itxaropen handiagoa piztu, orduan eta kritika gehiago jasotzen genituen”.

Susmo haiek bazuten funtsa. Ahal Duguk erabakitzekoa zuen nolako formula erabili hauteskundera aurkezteko eta nola koordinatu prozesu guztia Podemosen barnean. Horregatik, bereziki hauskorra izan zen zutarriak jartzen aritu zireneko garai hura, eta alderdiaren etorkizun hurbileko patua markatu zuen. Izaera irekia ere oso arriskutsua izan zitekeen, edonori atea irekitzen zitzaizkiolako. “Askotariko jendea etorri zitzaigun, baita UPNren inguruko pertsonak ere. Ikusten genuen arrisku handiak hartzen ari ginela. Mundu guztiak izena eman zezakeen eta mundu guztiak bozkatu”, azaldu du Laura Perezek.

Urtarrilean idazkari nagusia hautatzeko prozesua zabaldu zenean, alderdi barruko tentsioak eta bere gain hartutako arriskuen dimentsioa azaleratu ziren. Europako Parlamenturako bozetarako hautagai izandakoak, Joan Boschek, dena ondo lotua eta itxia zeukan. Bere hautagaitzak *Navarra sí puede / Nafarroak ahal du* markarekin aurkeztea proposatu zuen, eta, gainera, ez zuen hitz egin nahi izan ondorengo hitzarmenez. “Gu irabaztera aterako gara, ez itunak egitera”, zioen Boschek. Iñigo Errejon Iruñera etorri izanak adierazten zuen Podemoseko sektoreen bermea zuela. Gillen Carroza mesfidati, berriz, proiektu hark ahuldadea erakusten zuela iritzi zion: “Podemos/Ahal Dugu marka falta zen, eta ni eta beste asko jabetzen ginen marka hura gabe masa sozial handia sortzeko ahalmena galtzen genuela. Ezin genuen marka zuri batekin aurkeztu”. Haren ustez, EH Bildurekin bateratzea ezinbestekoa zenez, Espainiako Podemosi eroso izango zitzaion formula zen Boschena. Iritzi berekoa da Laura Perez: “Nafarroako agertokia bereziki zaila zen, eta auzia zen aldaketa ahalbidetzea Andaluzian porrot erabatekoa eragin gabe. Podemosen sektore estrategenek benetako beldurra zioten horri”. Haatik, Boschen irtenbidea surrealizatzen jo zuen. “Nahi zuen guztia ezkuta zezakeen baina ezin zuen auzia saihestu”.

Militantziaren zati handi batek uste zuen lehentasuna Nafarroako aldaketa zela eta ez zitzaiola begiratu behar Espainian izan zezakeen eraginari. Hala, Boschen proiektuaren aurkakotasunean oinarritu zen alternatiba. “Ikusten genuen biltzen zirela eta zerbait prestatzen ari zirela baina ez zutela ezer ateratzen”, aipatu du Perezek. Horregatik, hauteskundeon nondik norakoak finkatzeko asmoz, batzar irekiak antolatu zituzten. “Gogoan dut Urtezarharrean, adibidez, orduak eta orduak eman genituela eztabaidan”. Egoitzarik ez zutenez, edozein tokitan biltzen ziren, kalean zein tabernatan.

Ildo nagusiak zehaztuta, zera falta zen, gidaritzza zein hautagaitzak hartuko zuen zehaztea. Pertsonalki une desegokian etorri zitzaion Laura Perezin erronka hura. Lizarrako ikastetxean euskara eskolak ematen ari zen, eta etorkizunean abokatu bulegoa irekitzearekin egiten zuen amets. “Zinez, ez nuen hautagai izan nahi. Izugarri gustuko nuen irakasle izatea”. Laura Perezek ahalegina egin zuen Boschen taldearekin hitzarmena egiteko, baina aukera hura aztertzekeo batzarra ireki zenean, txinpartak atera ziren. “Jende kaltegarri batek izugarritzko kalapita antolatu zuen; ezinegonara eragin zuen, eta bakoitzak bere bidetik jo zuen”. Urtarrileko egun batez, Kale Nagusian zihoala kazetari batek deitu zion jakinaraztekeo Boschek hautagaitza aurkeztuko zuela biharamunean. “Esan didate ziurrenik zu izango zarela hautagaia”, gaineratu zion kazetariak. Ingaruneak presio egiten zion, baina, artean, erabakia hartzekoa zuen. “Dei hark bertigoa eta erantzukizuna eragin zidan, baina ikusi nuen ez zegoela Boschi aurre egingo zion beste inor”.

“Laura bakarrik zegoen”, gogoan du Eduardo Santosek. Ez zekien ezer alderdi barruan gertatzen ari zen barne gatazka haren tamainaz, baina Perezek aholkua eskatu eta, egun batetik bestera, haren aholkulari egin zen. Gertaeren bilakaerak alderdian murgildu zuen. Gillen Carroza ere ia oharkabean sartu zen: “Ez nekien nola funtzionatzen zuen barne prozesu hark. Ez nuen interesik; Lauraren hautagaitzan sartzea proposatu zidaten, baina lasai asko egon nintekeen beste hautagaitzan”. Programak lantzen hasi eta antolakuntza idazkari izaten bukatu zuen.

Perezek irabazi zion Boschi barne lehia hura. Eta, atsedean hartzeko denborarik gabe, jarri behar izan zuten abian zerrendak osatzeko pro-

zesua. Alderdiak presa zuen. Hiru hilabete baino gutxiago zituzten, eta Perezek ez zuen argi idazkari nagusiak Parlamentura ere joan behar ote zuen. “Denbora galdu zen; Laurak une hartan ez zekien non zegoen. Argi esan nion: *Politika egiteko aukeratu zaituzte eta utzi egin beharko duzu lana*”, azaldu du Eduardo Santosek. Azkenean, lana utzi zuen Perezek, nahiz eta Iribasen Hezkuntza Departamentuarekin tirabirak izan. “Kaleratzear izan ninduten. Ikaragarria izan zen”. Carrozak ulertzen du Perezen ezbaia: “Bere etxetik datorren eta Parlamentuan sartzearen den edonoren modura zalantzak izan zituen”.

Martxoan hauteskunde primarioetara deitu zuten. Izena ematen zuen orok edonorentzat bozkatu zezakeen, eta boto kopuruen arabera osatu behar zuten zerrendaren ordena. Perezen kasuan, zerrenda bat osatu zen, eta hark jaso zuen boto gehien. Zerrenda hartan azken orduan sartu zen Eduardo Santos: “Oso-osoa zaila da koadroak hain denbora gutxian bilatzea. Denborarekin egin behar da, eta guk hiru hilabetean eraiki behar izan genuen dena. Epearen azken gauean, mezu bat bidali zidan Gillenek, zerrendan sartu ninduela eta nahi banuen uzteko. Horrela sartu ninduten”.

Hauteskundeak ate joka zituzten, eta oraindik dena egiteko zuten: kanpaina diseinatu; alderdia antolatuz; logistika, komunikazioa eta produkzioa koordinatu, finantzabidea bilatu; izena emateko prozedura bete... “Ez genuen inolako esperientziarik”, aitortu du Carrozak. Kanpainan antolatzaile aritu zen. “Korrika genbiltzan toki batetik bestera, presaz, aterea den trenaren atzetik. Nire bizitzako bi hilabeterik bizienak izan ziren. Denok argaldu ginen”.

Estu-estu, larri, baina zisne beltza ezustea emateko gertu zegoen.

DIEGO PAÑOS (EDO DN) KALEA

Heldu zen, azkenik, hauteskunde kanpaina, eta jokalekua inoiz baino zailago zegoen. Martxoko eta apirilko inkestek lehia estua iragartzen zuten, nahiz eta batez besteko emaitzek garaipena erregimenaren indarrei ematen zieten. Kanpainaren abiapuntu hartan, UPN zein PSN gainbeheran ziren, lehia bizia zegoen nor izango bigarren indar eta, ondo-

rioz, aldaketaren lidergoa hartzeko; Ciudadanos indarrean sar zitezkeen parlamentuan, eta azken balantza eskuinerantz bultzatu.

Bigarren indar izateko lehia hartan, Geroa Baik etekina atera nahi izan zion Uxue Barkosen figurari. Nahiz eta lehiakideek kanpaina presidentzialista zela leporatu, bere indargunea ustiatu zuen koalizioak. CISEk iragarri zuen gainerako hautagaien aldean ezagunena zela eta era berean gehiena hura baloratzen zutela. Hilabeteak zeramatzan Barkosек kanpainaren gidalerroak lantzen, eta bi ardatz nagusi hartu zituen: “Ezin genuen demagogia errazean erori eta aldarrikatu aldaketarekin krisia amaituko zela. Aldaketa ez da El Dorado. Bestaldetik, ezin genuen mendekuz jokatu, eta, beraz, aldaketak lasaia izan behar zuen”.

Araizek, hautagai moduan, ahulgune bat zuen. Denbora asko zerraman politikaren lehen lerrotik kanpo, eta, CISEn arabera, hamar herritarretik bik baino ez zuten ezagutzen. Gainera, nafar askok HBren garaiarekin lotzen zuten bera, eta bazekien hark UPNk beldurraren mezua erabiliko zuela eskuineko botoa mobilizatzeko. Horregatik, arriskatu egin zuen. Navarra TV-n telebista eztabaida proposatu zion Jose Javier Esparzari. Hori egiteagatik eskuinaren desirako lokatzean erortzea eta bi poloak mobilizatzea leporatu zitzaion EH Bilduri, baina, Araizek baikortzat jo du eztabaida hura: “Haiek bilatzen zuten irudia apurtu genuen. UPNk betiko irudia bilatu eta *Dena ETA da* mamua astindu zuen, baina horrek epemuga du. Ez zuen lasaitasun mezua eman Esparzak”. Kanpainan, argi zuen beste ideia bat: “Lehen baldintza zen PSNrekin ez genuela kontatu behar, eta, horretarako, 26 eserlekuko zenbaki magiko hori gertatu behar zen”. Geroa Bai zein Ezkerra bestelako tentazioetan erori baino lehen, EH Bildu indartsu baten beharra aldarrikatu zuen Araizek. Hura zen koalizioaren apustua.

Ahal Duguk irizpide nagusi bat zuen guztien gainetik: “Hanka ez sartzea”. Gillen Carrozak bazekien Pablo Igleziasek erakarritako boto erauntsiari eutsita emaitza onak lortuko zituela, baina, horretarako, funtsezkoa zen hutsik ez egitea. Tentsiorik handieneko uneak Artikako aferak eragin zuen. Jose Javier Esparzak leporatu zion Laura Perezi Artikako kontseiluak hatzarekin hautatu zuela frantseseko tailer batzuk emateko. Kontseilu hartan bere gurasoak zeudenez, *Diario de Navarra*-k

soka hari tira zion. Astean lau orduko tailer soil batek ez zuen behar lehiaketa publikorik. Polemika antzua izan arren, Ahal Dugu higitzeko eta ustelkeriarekin lotzeko “joko zikina” zen, Eduardo Santosen arabera. “Bagenekien eztabaida faltsu batean erortzea bilatuko zigutela, baina erantzuna prest genuen”. Galde-erantzunen joko hartan sartuz gero, ordea, galtzen atera zitezkeen, eta, era berean, axolagabe jokatzea garesti ordain zezaketen. “Laurak erabaki zuen prentsaurrekoa ematea; dokumentu guztiak atera zituen, eta gure harridurarako polemika jaitsi egin zen. *Diario de Navarra*-k ez zuen erantzun”.

UPNk eta *Diario de Navarra*-k erregimenaren gainbehera gerarazi nahi zuten, eta izuaren mezua baino ez zitzaien geratzen euren jendea mobilizatzeko. Ahal Duguren aurkako kanpaina hura gaizki atera zitzaien, eta beldurraren gainerako tekla guztiak ukitu zituzten. Adolfo Araiz indarkeriarekin lotu zuten, Uxue Barkosi ikurriak ezkututzea egotzi zioten, eta Laura Perez, berriz, “EH Bilduren B plana zen”. Mezu haiek ez zieten funtzionatu. Bai, ordea, Ciudadanosen aurkakoak. Alderdi berriaren inguruko informazioak apenas eman zuen Cordovillako egunkariak, eta kanpainaren azken egunean Diego Paños hautagaiaren hanka sartzeari oihartzuna eman zion. *El Mundo*-k egindako entzuketa batzuetan, Pañosek solasaldi batean Joaquin Galve Nafarroako Auzitegi Nagusiko presidentea larri iraindu zuen, “nagi”, “kubata edale” eta “epaile gisa ez du ideia zipitzik” adierazita. “Politikoki hilda gaude”, bota zuen Pañosek informazioa argitaratu zenean. Hautagaitza atzera botatzear izan bazen ere, azkenean ez zuen egin. Hura ere erabakigarria izan zen.

Maiatzaren 24an hauteskunde egunean, inoiz ikusi gabeko baldintzak zeuden, benetan, UPN gobernutik atera eta PSNri gobernagarritasunaren giltza kentzeko. “Oso gau berezia izan zen”, gogoan du Eduardo Santosek. “Gau hari buruz gogoan dudana da emaitzak ateratzea izugarri kostatu zela. Eromena izan zen”. Uxue Barkosek adierazi bezala, boto zenbaketa tantaka-tantaka jakinarazi zen, eta Euskal Herriko beste lurraldeetan zein udaletan zenbaketa azkarrago zihoanez, horrek urduritasuna areagotu besterik ez zuen egin.

Udaletatik etorri zen lehen lurrikara. Zenbaketak aurrera egin ahala, UPNren gotorlekuak erortzen ari ziren banan-banan: Tuteran, Barañain, Lizarra, Tafalla, Iruñea... Gazteluko plazako EAren egoitzan, Maiorga Ramirez erne zegoen datuei begira, poztasun oihuak entzun zituenen: “Alboko gelan zeuden Iruñeko Udaleko hautagaiak, eta datu freskoagoak zituzten, hirietako datuak kontrolatzea errazagoa delako”. Ezin zuen sinetsi gertatzen ari zena. “Ateratzen dela, ateratzen dela! Iruñean bigarrenak ginen, eta orduan pentsatzen duzu: Lortu dugul! Eta bertigoa datorkizu”. Iruñeak lehen alkate abertzalea izatea jada ez zen amets hutsa.

Botoak zenbatu ahala, PSNren eta Geroa Bairen eserleku dantza etorri zen; gorabehera hark balantza alde batera edo bestera erabaki zezakeen. Begien aurrean zuten oso noizean behin igarotzen den aukera historikoaren trenan; hatzekin uki zezaketen, baina edozein gorabeherak ere betirako alden du zezakeen. “Edo 26-24 lortzen genuen edo ezer ere ez. Ez dakit porrota izango zen baina ez genukeen lortuko aldaketaren aldeko indarren oinarri zabala zabaltzea”, azpimarratu du Gillen Carrozak. Denak kalkuluak egiten zebiltzan, boto dantza Geroa Bairen alde erori zenean.

Haatik, kontaktaren azken txanpan, beste mehatxu bat atera zen. Ciudadanos botoen %3ra helduz gero, bederatzigarren parlamentaria kenduko zion Geroa Baire. C's gero eta gertuago zegoen. EH Bilduk eta Ahal Duguk euren parlamentaria jokoan balego bezala ikusi zuten dantza hura. “Ia bihotzekoak eman zigun”, dio Carrozak. Kazetariak adierazpen eske zeuden, baina Adolfo Araizek ez zuen atera nahi dena argitu arte. Gauerdia gertu zen, eta posta bidezko botoak falta zirela, 26ko gehiengoa egonkortu egin zen. Aldaketak jada ezin zuen ihes egin. “Sekula ez genuen pentsatuko Geroa Bairen bederatzigarren eserleku hura horrela ospatuko genuela”, dio Bakartxo Ruizek.

Ahal Duguri antzera gertatu zitzaion. “Denok urduri geunden, eta, bat-batean, Xabi Fernandez Oregik bere kalkuluak egin zituen, eta lasai egoteko eskatu zigun: *Geroa Baik aterako ditu, ez dago arazorik*”, gogoan du Santosek. Bitartean, Laura Perez kazetari artean zegoen ezinegonari ezin eutsirik, azken emaitza noiz etorriko zain, agertoki desberdinen

araberako adierazpenak pentsatuz. Korrika, alderdiko batek “26 PSN-rik gabe!” oihukatu zion. “Orduan aldaketaren aldeko balorazioa egin nuen, eta, gero, kazetari batek galdetu zidan ea zer iruditzen zitzaidan lortutako zazpi parlamentariak, eta nik nire baitan: *Hara, hara, zazpi lortu al ditugu?*”.

Batzuek eta besteek ospatu zuten garaipena. Beste aldean, berriz, porrotaren aurpegiak nabari ziren. Nahiz eta bozak irabazi, Carlos Garcia Adanero (UPN) bazekien oposiziora zihoazela. “Argi eta garbi ikusi nuen gobernu alternatiboa osatuko zela”. Dena ozta-ozta izan zen. Karanbola bat. “Elementu askoren batuketa izan zen, baina behingoz zortea izan genuen”, nabarmendu du Maiorga Ramirezek. Eta ez zaio arrazoirik falta. Azkenean, 143 botoren faltan geratu zen Ciudadanos. Azken orduko hutsegite hura izan ez balu eta batez ere *Diario de Navarra*-k lau haizetara zabaldu izan ez balu, ziurrenik ez zen izango aldaketarik. Horregatik, Juan Cruz Lakasta kazetariak inoiz txantxetan aipatu izan duen bezala, Iruñean karrika bat jarri beharko litzaioke Diego Pañosi.

Ala, beharbada, *Diario de Navarra*-ri?